



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

19 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako 1996ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak aurkeztua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu "Nafarroako Enplegu Plan" bat egin dezan pre-miatzen duena, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gas-horniketa zerbitzua egiten duten enpresei eskatzen die zenbait kontzeptu kobratzeari uzteko, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (12. or.).

—Chiapasko egoerari buruzko adierazpen politikoa. Erabakiaren testu osoa (13. or.).

—Sendagaiak finantziazio publikotik kanpo uzteari buruzko ebazpena. Osasun Batzordeak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Zenbait Kontseilarik egindako obren esleipenei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).

—Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).

—Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espedienteari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).

- “Itxaropenaren Telefonoa” aurrekontu-lerroaren betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
- “ADACEN” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).
- Hurrengo eskolaratze kanpainako leloei buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (18. or.).
- Haurdunaldia nahita eteteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkarteak egindako eskaerei buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (19. or.).
- Uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketan garapenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- 1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkarte-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- 1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arauemaileak:

- 58/1998 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (24. or.).
- 54/1998 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 16koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina onesten duena (25. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1996ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Diputazioak, 1997ko irailaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, 1996ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parla-mentura. Hari buruz, Kontu Ganbarak txosten bat eman zuen, 1998ko otsailaren 20ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramale- en Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- 1996ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bil- kuran irakurketa bakarreko jardunbidez bidera- tzea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizka- ri Ofizialean argitara dadin agintzea.

(Foru Lege proiektuko artikulua bakarrean aipa- tzen diren agiriak Foru Parlamentari jaun-andreen eskura daude Biltzarreko bulegoetan).

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

Nafarroako 1996ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe- tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorra prestatzea eta Kontuak for- malizatzea Parla-mentuari aurkezteko, horrek ezta- baidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onespena eman diezaien, hori guztia foru legeek ezarri dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko aben- duaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikulua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eskutan uzten du Nafarroako Kontu Orokorraren formula- zioa, horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsi- ta dituela, Nafarroako Parla-mentura igorri beharko dira behar duten Foru Lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1996ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duela eta Nafarroako 1996ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroa- ko Parlamentuko Erregelamenduko 151. artiku- luan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da Foru Lege horri onespena ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafa- rroako Gobernuak onetsitako Nafarroako 1996ko Kontu Orokorra, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. Liburukia.- Foru Komunitateko Administra- zioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekon- tuen likidazioa, finantzen egoera-orriak eta Txos- tena. Hona hemen hori osatzen duten agiriak:

– Nafarroako 1996ko Aurrekontu Orokorren likidazioaren laburpena.

– Gastuen Aurrekontuaren likidazioa.

– Dirusarreraren Aurrekontuaren likidazioa.

– Finantzen egoera-orriak eta argibide osaga- rriak:

- Egoeraren Balantze Orokorra.
- Ekitaldiko emaitzen kontua.
- Fondoaren jatorri eta aplikazioaren egoera- orria.
- Diruzaintzako kontu orokorra.

- Zorpetzearen kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.
- Kobratu beharreko eskubideak eta ordaindu beharreko betebeharrak, aitzineko ekitaldietatik heldu direnak, nola dauden eta haien bilakaera azaltzen duen egoera-orria.
- Erabilera orokorraren xedea hartu duten jabari publikoko ondasunetan ekitaldiaren barnean eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.
- Hurrengo ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera-orria.

– Oroit-idazkia.

II eta III. Liburukiak.- Nafarroako Parlamentuaren Kontuak, Kontuen Ganbararenak eta Foru Komunitateko Sozietate Publikoenak.

ERANSKINA

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen Aurrekontuetako likidazioaren xehetasun dokumentuak.

– Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen egoera orrien xehetasun dokumentuak.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramailearen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Bai Nafarroako autogobernuaren sendotzeak bai jendearen interes orokorra eta legezatasun positiboa hurbiltasun handiagoz ezinbestez babestu beharrek, eta, horiez gain, legegintzari eta administrazioaren jardueari hobekuntza juridiko eta tekniko handiagoa emateko komenentziak egoki egiten dute foru erakundearen eta Nafarroako Administrazio Publikoaren gainetik egonen den organo arau-emailea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea. Organo horrek beharrezkoa den autonomia izanen du bestelako erakundeekiko eta bere eginkizunetan, objektibotasuna eta independentzia bermatzeko, Estatuko legediak Estatu-

ko Kontseiluari ematen dizkion eginkizunei eta Foru Lege honek ematen dizkion gainerakoei dagokienez.

Nafarroako Foru Komunitateak, foru araubidearen babesean, erabateko eskumena dauka bere Foru Erakundeak arautzeko eta, halaber, berari dagozkio Toki Administrazioaren alorrean Toki Entitateen administrazio jarduketan legezotasunaren kontrolari buruzko eskumenak. Kontrol hori eraginkorragoa da, zalantzarik gabe, aldez aurretik geroztik baino.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak behartzen du orain organo arau-emailea sortzera, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak Estatuko Kontseilua Foru Komunitatearen eskumen diren gaitan ordez dezan. Horrela, beraz, autonomia handiagoa emanen litzaioke Nafarroari, legezotasunaren gaurko gora-beherak konponduko liriteke eta eskatzen diren txostenak arinago emanen liriteke.

LEHEN KAPITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. 1. Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu da, Nafarroako Foru Komunitatearen goi mailako aholkularitza-organo gisa.

2. Kontseiluak autonomia izanen du bestelako erakundeekiko eta bere eginkizunetan, jardunaren objektibotasuna eta independentzia bermatzeko.

2. artikulua. 1. Kontseiluak, jardunean, zaindu egingen du Nafarroako Foru Komunitateko legegintzaren Foru Lege honi jarraituz betetzen eta betearazten dela.

2. Bere eginkizunetan, Kontseiluak aholkua eskatzen dion agintariak espreski eskatzen dionean baizik ez ditu baloratuko egokitasun eta koherentzia alorrak.

3. artikulua. 1. Kontseiluari nahitaez egin beharko zaio kontsulta lege honetan edo beste batzuetan hala ezartzen denean eta, aukeran, gainerako kasuetan.

2. Kontseiluaren irizpenak ez dira lotesleak izanen, Lege honek kontrakoa ezartzen duenean ezik.

BIGARREN KAPITULUA

Osaketa

4. artikulua. 1. Zazpi kidek, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak izendatutakoek, osatuko dute Kontseilua; horietatik bost Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu, bere kideen gehiengo osoarekin, eta gainerako biak Nafarroako Gobernuak beren lanbidean hamar urtez baino gehiago jardun duten gaitasun eta ospe aitortuko legelarien artetik.

2. Kontseilukideak bost urteko eperako izendatuko dira eta berriro hautatuak izaten ahalko dira.

5. artikulua. 1. Kontseilukideak, beren karguan dihardutenean, independenteak izanen dira eta ez dira hortik kentzen ahalko.

2. Kontseilukideek eskubidea izanen dute Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen dietak kobratzeko.

6. artikulua. 1. Ezin izanen da aldi berean kontseilukide izan eta beste edozein ordezkari- aginpide edo edozein kargu politiko eduki, edo bestela alderdi politiko batean edo sindikatu batean zuzendaritza eginkizunetan jardun eta haien esanetara lan egin, edo epaile eta fiskal karreratan jardun.

2. Izendatzen den egunetik bost laneguneko epearen barrenean hautaturiko kontseilukideak bere bateraezintasunaren arrazoia uzten ez badu, ulertuko da ez duela kargua hartzen eta beste kontseilukide bat izendatuko da.

3. Kontseilukide kargua hartzen duten funtzionario publikoek jatorrizko Administrazioan jarduneko zerbitzuan jarraitu ahalko dute. Kasu horretan, funtzionario publikoen bateraezintasunari buruzko araubide orokorra aplikatuko zaie.

7. artikulua. 1. Kontseilukideek zio hauengatik utziko dute kargua:

- a) Uko egitea.
- b) Izendatua izateko epea bukatzea.
- c) Karguan dihardutelarik bateraezintasuna izatea.
- d) Beren eginkizunak ez betetzea.
- e) Epai irmoaren bidez aitorturiko ezgaitasuna.
- f) Epai irmoaren bidez maltzurkeriazko delitua dela-eta ezarritako zigorra.

2. Nafarroako Gobernuko Lehendakariak dekretatuko du karguztea. Aurreko zenbakiko c) eta d) lerroaldeetan aurrikusiriko kasuetan, Kontseiluaren botua beharko da, kideen gehiengo osoarekin eta interesatuari entzun ondoren.

3. Kargu betegabeak, baita hiltzeagatik suertatutakoak ere, Foru Lege honetako 4 artikuluko 1 zenbakia jarraituz beteko dira falta den denborarako.

4. Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Kontseiluak gehiengo osoaz hala proposaturik, bertan behera uzten ahalko ditu kontseilukideen eginkizunak, prozeduragatik edo artikuluko 1 zenbakian kargua uzteko aipatzen diren zioengatik.

8. artikulua. 1. Kontseiluburua kontseilukideen artetik hautatuko da, gehiengo osoaz eta isilpeko bozketaz, eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariari proposatuko zaio haren izendapena.

2. Gehiengo osoa lortzen ez badu, beste bozketak egingen da. Horretan botu gehien eskuratu dituen aukeratuko dute. Hainbanaketarik gertatuz gero, beste bozketak egingen da, eta berriro berdin gertatzen bada, kontseilukiderik zaharrena izendatuko da.

3. Kontseiluburuaren agintaldiak bost urte irauten du. Horiek iragan ondoren, behin besterik ez da kargu horretako hautatua izaten ahalko.

4. Betegabe badago, edo Kontseiluburua ez badago edo gaiso badago, antzinatasunik handiena daukan edo, hala balitz, zaharrena den kontseilukideak ordeztuko du, beste bat aukeratu arte edo ordezenaren zioa bukatu arte.

5. Kontseiluburuak Kontseiluaren ordezkari- tza edukiko du ondorio guztietarako.

9. artikulua. Kontseiluari dagokio bere antolamendu eta eginkizun erregelamendua prestatzea, eta Nafarroako Gobernuari hura onestea, Foru Lege honetako hatsapenekin bat.

10. artikulua. Kontseiluak bere aurrekontua prestatuko du eta Nafarroako Aurrekonotu Orokorretan atal gisa agertuko da.

HIRUGARREN KAPITULUA

Eskumenak

11. artikulua. 1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Kontseiluaren aholkua:

- a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.
- b) Foru Lege proiektu eta proposamenetan, Nafarroako Parlamentuak hala nahi duenean bere

Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek eskatuta, edo Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez.

c) Foru Dekretu Legegileetarako proiektuetan.

d) Beste Administrazio Publikoekiko Hitzarmen edo Itunak ulertzean sor litezkeen zalantza eta ezadostasunetan, Foru Komunitatea alderdi bat denean.

e) Kontseiluaren antolamendu, eskumen edo eginkizunak ukitzen dituzten administrazio xedapen proiektuetan.

f) Konstituzioaren aurkakotasun helegiteetan eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumengatazketan.

g) Foru Ogasunaren eskubideei buruzko elkaraditzeetan eta horiei buruz sor daitezkeen gatazken arbitraien menperatzean.

h) Kontseilukideen bereizketa.

i) Nafarroako Gobernuak Legeak ezartzen duena betez emaniko erregelamenduak edo eta izaera orokorreko xedapenak, baita haien aldaketak ere.

j) Nafarroako Gobernuaren Departamentuen arteko eskumen-gatazka.

k) Berrikuspeneko administrazio helegiteak.

l) Administrazio ekintzen ofiziozko berrazterketa, Legeek aurrikusten duten kasuetan.

ll) Administrazio kontratuen baliogabetze, interpretatze eta ebaztea, kontratista aurka azaltzen denean, eta, edozein kasutan, kontratuaren prezioak 50 milioi pezetatik gora jotzen duenean.

m) Administrazio kontzesioen baliogabetze, interpretatze, aldatze eta iraungitzea, kontzesioen helburua edozein delarik eta kontzesioduna aurka azaltzen denean, eta, edozein kasutan, ezarri beharreko arauak hala adierazten dutenean.

n) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan zein bere menpeko erakunde publiko edo Nafarroako Toki Erakundearen administrazioan kalte-galaren ordainketa gisa aurkezten diren erreklamazioak.

o) Aparteko kredituak edo kreditu osagarriak ematea.

p) Monopolio eta zerbitzu publiko monopolizatuen kontzesioa.

q) Legeak hala aginduta, Kontseilu Aholkuemaileari edo, bere kasuan, Estatu Kontseiluari kontsultatu behar zaion edozein gai.

2. Irizpena nahitaezkoa izanen da Nafarroako Toki Erakundeentzat Estatu Legeek Estatu Kontseiluaren edo erakunde autonomiko baliokidearen irizpena eskatzen duten kasu guztietan.

12. artikulua. Kontseiluak irizpena emanen du, baita ere, aholkua eskatzen zaion gaietan, Nafarroako Gobernuak, bere Lehendakariaren bidez, edo Nafarroako Parlamentuak, bere Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek hala eskatuta.

13. artikulua. Nafarroako Kontseilu Aholkuemailearen irizpenak Estatu Kontseiluaren irizpena ordezkatzeko du, betiere 11. artikulua ezarritakoa kontuan hartuz.

LAUGARREN KAPITULUA Funtzionamendua

14. artikulua. 1. Kontseiluaren eztabaidak eta erabakiak baliogarriak izateko, beharrezkoa izanen da Lehendakaria edo legearen arabera ordezkatzeko duena bertan egotea, bertan dauden kontseilukideen kopurua gehi Lehendakaria gehiengo absolutua izatea, baita idazkaria edo bere ordezkariak dena bertan egotea ere.

2. Erabakiak Kontseilua osatzen duten kontseilukideen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, Lehendakariak erabakiko du kalitateko botua erabiliz.

3. Gehiengoaz hartutako erabakiarekin ados ez dauden kontseilukideek idatzizko botu partikularra egiten ahal izanen dute, erregelamenduak zehaztuko duen epearen barruan. Botu hori irizpenari gehituko zaio.

4. Kontseilukideek ez dute boturik emanen beraiek zuzenean parte hartu duten gaietan, edo eta odolkidetasunezko bigarren maila zibileko senideek parte hartu edo interesik duten beste gainerako guztietan.

15. artikulua. 1. Kontseiluari aholkua emateko aurkeztutako gaietan zuzenean ukitutakoek hitza izaten ahalko dute Kontseiluaren aurrean.

Hitz ematea Lehendakariak erabakiko du, ukitutakoek hala eskatuta edo ofizioz. Hitz ematea egiten da, betiere, aholkua emateko aurkeztutako gaietan Administrazio Publikoa zuzenean ukitua dagoenean eta ukituta dagoela adierazten duenean.

2. Aholkua emateko aurkeztutako gaietan jakintza tekniko nabarmena daukaten erakundeak edo pertsonak gonbidatuak izaten ahalko dira, Kontseiluaren aurrean bere txostenak azal ditzan.

ten, idatziz edo ahoz, gonbidapena zuzenean edo aholkua eskatzen duen erakundearen bidez.

3. Edonola ere Kontseiluak, bere Lehendakariaren bidez, agintzen ahalko dio aholkua eskatzen duen erakundeari espedientea osa dezan, beharrezkoak iruditzen zaizkion aurrekari, txosten eta froga guztiekin, baita irizpidea emateko jartzen diren gaiekin zerikusirik duten gorabeheretan jakintza nabarmena daukaten pertsonen edo erakundeen iritziekin ere. Halako kasuetan, irizpena emateko epea geroratuko da osatzeko agindua betetzen den arte, eta agindu hau betetzen ez den bitartean ulertuko da aholku ematea ez dela burutu.

BOSGARREN KAPITULUA Prozedura

16. artikulua. 1. Kontseiluak hilabeteko epea dauka egindako kontsultei erantzuteko, irizpen eskaera jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Epea bukatutakoan erantzunik ez bada, aurkeztutako gaiaren aurkako objektiorik ez dagoela ulertuko da.

2. Espedienteak bidaltzen dituen aginduak irizpena premiazkoa dela esaten duenean, erantzuna emateko gehienezko epea hamabost egun baliodunekoa izanen da.

17. artikulua. Kontseiluak gai bati buruzko aginduzko irizpena ematen duenean, Foru Komunitateko beste edozein erakundek ezin eginen du, ondorengo sei hilabeteetan, gai horri buruzko txosten juridikorik.

18. artikulua. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari aholkua eskatzea aginduzkoa den kasuetan, Nafarroako Gobernuaren Kontseilaria Kontseilu Aholku-emaileak emaniko irizpenarekin ados ez badago, Nafarroako Gobernuak ebatziko ditu, betiere.

19. artikulua. Kontseiluaren irizpenak, irizpenaren oinarri izan den agiriarekin batera, Parlamentuan bideratzen diren ekimen legegileen espedienteetan sartuko dira.

SEIGARREN KAPITULUA Kontseiluaren zerbitzuko langileak

20. artikulua. 1. Kontseiluari laguntzeko, gutxienez, hiru abokatu izanen dira. Hauek A mailako lanpostuak betezen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioen artean aukeratuko dira, merezimendu lehiaketaren bidez, betiere lanpostuak betetzeko zuzenbide lizentziatua izatea eskatu zaienean. Abokatu horiek Kontseiluari aholkua emateko aurkeztu

zaizkion gaiei buruzko irizpenak aztertu eta presatuko ditzute, baita, beharrezkoa denean, irizpen proiektuak idatziko ere. Halaber, erregelamendua- ren bidez zehaztuko diren eginkizunak ere aurrera eramán beharko ditzute.

2. Kontseiluak, gehiengo absolutuaz, Idazkari bat aukeratuko du hiru Abokatuen artean. Lehendakariak izendatuko du eta langileen burua izanen da, Lehendakariaren eskumenen kalterik gabe. Idazkaria izateko izendapenak bost urteko iraupe- na izanen du, gero ere berritzen ahalko direnak.

3. Gainerako lanpostuei dagokienez, Kontseiluak bere proposamena eginen du eta Nafarroako Gobernuak onartuko du plantila. Plantila Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioek beteko ditzute, merezimendu lehiaketaren bidez.

4. Funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako gainerako funtzionarioek daukaten bateraezintasunak edukiko ditzute.

Xedapen iragankorrak

Lehena. 1. Foru Lege hau indarrean sartu eta ondorengo hiru hilabeteen barruan, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak izendatu behar dituzten Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileko kontseilukideen izendapen-proposamenak helaraziko dizkiote Nafarroako Gobernuko Lehendakariari.

2. Azken izendapenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondorengo hilabetearen barruan Kontseilua eratu eginen da.

3. Foru Lege honen 16. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duen epea ez da kontatzen hasiko Kontseilua eratzen denetik bi hilabete igarotzen diren arte.

Bigarrena. 1. Aurreko Xedapen Iragankorreko 2. zenbakiak ezartzen duen epearen barruan, eta Kontseiluko Abokatu lanpostuak behin betiko horniturik ez dauden bitartean, Lehendakaritza Kontseilariak Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako zuzenbide lizentziatuak diren hiru funtzionario atxikiko dizkio Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari, nahiz eta hau, ondoren, Foru Lege honen 20. artikuluko aipatzen duen merezimendu lehiaketaren oinarrietan ez den merezimendu gisa hartuko.

2. Kontseilua eratu eta hiru hilabeteko epean, Kontseiluak abokatu hiru plaza horiek hornitzeko merezimendu lehiaketarako deia eginen du.

3. Merezimendu lehiaketa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatu- tuak mailaz igotzeko lehiaketei buruzko idatzian

ezarritakoaren arabera burutuko da, baita berau garatzen duten xedapenen arabera ere.

4. Lehen merezimendu lehiaketan, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak Epaimahi kalifikatzailea osatuko du, eta bertan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen Batzordeko ordezkari batek hartuko du parte.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak hornituko du Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak bere funtzionamendurako behar duen dirua, honek Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu-egoean bere atala izan arte.

Azken xedapenak

Lehena. Foru Lege honek ezartzen duenaren aurka egiten duen edozein xedapen baliogabetzat edo Nafarroako Foru Komunitatean aplikaezintzat jotzen da.

Bereziki, azaroaren 14ko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legearen 16. artikulua 3. atala baliogabetua gelditzen da.

Bigarrena. Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondorengo egunean sartuko da indarrean.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua “Nafarroako Enplegu Plan” bat egin dezan premiatzen duena

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua “Nafarroako Enplegu Plan” bat egin dezan premiatzen duena. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldearen Nueva Izquierdak Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean eta Nueva Izquierdak aurkezturiko jabeldurak sorturiko eztabaidaren ondoren, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean eztabaida dadin.

1997 urtean izandako datu ekonomikoak onak izan badira ere, eta alde batera utzita 1998 urterako islatu diren iguripen positiboak, horiek ez dira islatu behin betiko kontratazioa indartzera bideratutako politika egokiak ekarriko lukeen enplegu finkoaren gehikuntzan, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetan indar berezia eginen lukeena (gazteak, emakumeak eta 45 urte-tik gorakoen taldea).

Gu sinistuta gaude ez dela bazter utzi behar enplegua sortzeko bide posibleetako bakarra ere, eta argi ikusten dugu ahal den adostasunik handiena lortu behar dela, bai gizarte-agenteen artean bai Biltzar honetan bertan ere.

Hori dela eta, Nueva Izquierda alderdiak Estatu mailan CC.OO. eta UGT sindikatuek aldarrikatutakoak bere egin eta agertzera ematen ditu Nafarroako Parlamentuak aintzat har ditzan.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena plantetatu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua ondokoetara premiatzen du:

1. Gizarte-agenteekin batera, mozio hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Enplegurako Plana burutzea. Planak oinarrizko helburu hauek izanen ditu:

a) Enplegua sortzeko politika aktiboak sustatzea (testu bakar batean jarriz han-hemen dauden arau guztiak).

b) Behin-behinekotasunaren tasa murriztea, foru administrazioetik bertatik hasita, aldi baterako kontratudunak finko bihurtzea sustatuko duten politikak erabiliz.

c) Dirulaguntzen programa bat burutzea. Programa horretan, gizarte-agenteekin adostu ondoren, enplegua banatzeko politika bat sustatuko da, plantila handitzeak ekarriko dituena.

d) Nafarroan aparteko orduei eta horiek enpleguan dituzten eraginari buruzko ikerlana egitea, kontratazio berriekin ordeztu daitezkeen aparteko ordu guztiak kentzera bideraturiko planteamendu bat egiteko moduan.

2. Gizarte-agenteekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoekin batera, Lanerako Heziketarako eta Bergizarteratzeko Programa bat burutzea, behar den prestakuntza-kontratuaren bidez; programa hori gizarte-agenteei beraiek zuzenduko dute eta Nafarroako Gobernuak finantziatuko eta gainbegiratuko du.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gas-horniketa zerbitzua egiten duten enpresei eskatzen die zenbait kontzeptu kobratzeari uzteko

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gas-horniketa zerbitzua egiten duten enpresei eskatzen die zenbait kontzeptu kobratzeari uzteko. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguia

MOZIOAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko kidea den Pedro Romeo Lizarraga, Ganbararen Arautegaren 192. artikuluekin eta ondokoekin bat etorri, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko gas horniketa-zerbitzuan "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen" direlakoan legearen aurkako kobraketa buruz hurrengo mozioa aurkeztu du.

Gas horniketa-zerbitzua egiten duten enpresek bezeroei kobratu ohi dizkiete "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen" izeneko kontzeptuak. Kobraketa hori azaltzeko otsailaren 27an Ramon Bultó, Industria, Mekataritza eta Lan Sailburua, Parlamentuko Industria Batzordean agertu zen.

Gas zerbitzuaren eskumena duen Administrazioa autonomikoa bada, zerbitzuaren kontzesioaren erregimen ekonomikoa Estatuaren eskumena da. Beraz, gaia aztertzerakoan Estatuaren legedira jo beharko dugu.

"Reglamento General del Servicio Público de gases y combustibles" (1973ko 2913 dekretua, 1983ko 3484 dekretuak aldatuta) eta "Ley general para la defensa de los consumidores y usuarios" (1984ko 26 Lega) arauen arabera orokorrak diren klausulak eta tarifak Administrazioak finkatu egin behar ditu. Gainera, gas horniketa zerbitzuan kobratu diren "alta eta ikusketa eskubide"ei buruzko epai asko egon dira Burgoseko epaitegietan kobraketa legearen aurkako deklaratu eta bezeroei dirua itzultzeko aginduz. Beste ikuspegi bategatik, Bizkaian, Araban eta Gipuzkon Arartekoa ondorio berdinetara heldu da.

Ramon Bultó Sailburuak, aldiz, ez zuen inolaz ere argitu zertan oinarritzen den "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen"en kobraketa, eta gai hori auzi juridiko bihurtu nahi du, inolako argudiorik eman ez bazuen ere.

Beraz, Industria Sailak behartu egingo ditu herritarrak haien eskubidea den "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen"engatik kobratu zaien guzti-guztia berreskuratzeko epaitegietara jotzera, kalte erantsi bat sortaraziz.

Horiek horrela, Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioak hurrengo erabaki proposamena aurkeztu du:

1- Nafarroako Parlamentuak enpresa kontzesionarioei eskatzen die "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen" kobratzeko erabiltzen den klausula ezabatzeke eta hemendik aurrera ez kobratzeko.

2- Nafarroako Parlamentuak "Ikuskaritza, Bezeroaren Alta eta Kontagailuaren egiaztapen"engatik kobratu den guztia bezeroei ahalik eta epe laburrenean haien ekimenez itzultzea eskatzen die enpresa kontzesionarioei, herritarrak kexa administratiboa edota judiciala aurkeztera behartu gabe.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguia

MOZIOAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean horri buruz eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioa

1998-2005 Errepide Planak Etxegarateko bikoizketa 1999-2004 aldian burutu beharreko lan gisa aurreikusi du, guztira 4.100 milioi pezetako kostua izanen du.

Bizkoketa lan horren garrantzia bideetako azpiegituren garapenak etorkizun ekonomikorako duen izaera bultzatzaile ezagunean datza; beraz, ados egon beharke ginateke Sakanako garapen sozio-ekonomikorako bikoizketa lan horrek izan dezakeen garrantzia handiaren inguruan.

Gaur egun, N-1 errepideko (Madrid-Burselas errepidea) Nafarroako tartea oso aurreratuta dago autobia bilakatzeko prozesuan. Departamentuaren aurreikuspenek maiatzean jarri dute Altsasuko lotunea eta Altsasu-Arabako muga tartea irekitzeko eguna.

Ezagunak dira Gipuzkoako Herrilan Sailak portuaren tartean bidesaria jartzeari buruz egin dituen adierazpenak.

Hori guztia dela eta, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak ondoko Erabaki Proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Gobernuak bere kezka azaldu nahi die Gipuzkoako Batzar Nagusiei Etxegarateko Portuan bidesaria jarri nahi izateagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahal den neurrian, Etxegarateko portuaren bikoizketa lanen hasiera eta bukaera aurrera ditzan.

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Chiapasko egoerari buruzko adierazpen politikoa

ERABAKIAREN TESTU OSOA

1998ko martxoaren 3an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, besteak beste, ondoko Erabakia hartu zuen:

Giza Eskubideen Batzorde Bereziak 1998ko urtarilaren 15ean eginiko Erabaki proposamena onestea. Hona hemen proposamena, hitzez hitz:

“Akteal-eko komunitatean, Mexikoko Chiapasen, gertatu berri den berrogeita bost pertsonen hilketa, giza eskubide futezkoenaren, hau da bizitzeko eskubidearen, bortxaketa onartezina da.

Beste aldetik, aipaturiko sarraskiak eta geroko gertakizunek (zapatisten komunitateen presio eta inguratze militarreko neurriak areagotzea) agerian utzi dute garai batean negoziatorako eta elkarrizketarako zabadutako prozesuaren aurka jotzeko borondatea dagoela. Itxaropenerako bidea ireki zuen prozesu hura San Andrésko Akordioak sinatzean islatu zen.

Egitate horien aurrean nazioarteko komunitatea eta bereziki gure gizartea ezin dira besterik gabe gelditu; alderantziz, beren ahotsa goratu eta elkarrizketaren eta bakearen bidetik joateko eskara egin behar dute antzeko egitaterik berriz gerta ez dadin.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordeak, bestelako erakunde, alderdi politiko, gizaldeko eta giza-eskubideen aldeko erakunde eta oro har gizarte zibilak jada adierazitakoekin bat, ondoko erabakia hartu du:

Lehenena. Mexikoko Gobernuari eskatzea lehen bait lehen eta erabat argitu dezala gertatutakoa, eta baita ondoriozta litezkeen erantzukizun penal eta politikoak garbitu daitezela, bereziki Administrazioarenak berarenak, horri eusten dion alderdiarenak eta ejerzito federalarenak.

Bigarrenena. Indarkeria edozein modutako gatazkak konpontzeko bide gisa baztertzea eta Chiapasen sendo bultzatzea elkarrizketa politikoa- ren berrekitea, horrela bakea lortzeko, justizian eta indigenen komunitateen eskubide individual eta kolektiboetan eta orokorki biztanleriaren eskubideetan oinarrituriko bakea.

Hirugarrena. Horretarako, indarrean jar dadila eskatzea Gobernuak indigenen auziari buruz sinatu zituen San Andreseko Hitzarmenak, eta halaber lurralde indigenen desmilitarizazioa eskatzea.

Laugarrena. Erabaki hau ondokoetara bidaltzea: Kanpo Arazoetarako Ministeriora, Mexikoko Errepublikak Madrilen duen enbaxadara, Comisión Nacional de Intermediación (CONAI) izenekora, eta San Cristobal de las Casas-eko elizbarrutira –azken bi horiek Chiapasen–.

Bosgarrena. Erabaki proposamen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaira eta Bozeramaileen Batzarrerera igortzea, behar diren ondorioak sor ditzan.”

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Sendagaiak finantziazio publikotik kanpo uzteari buruzko ebazpena

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, "Sendagaiak finantziazio publikotik kanpo uzteari buruzko Ebazpena", Osasun Batzordeak, 1998ko martxoaren 5ko bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Sendagaiak finantziazio publikotik kanpo uzteari buruzko ebazpena

Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du berriro sendagaiak finantziazio publikotik kanpo utzi eta gure hiritarrek osoki ordaindu behar izatea, interes ekonomiko huts bat dela-eta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sendagai horiek finantziazio

publikotik kanpo uzteko erabakia atzera botatzea exigitu dezan, daukan edukiarengatik, gizarte prestazioei eta osasun kalitateari eginen dien kaltea, dirua aurrezte besterik ez duelako; eta formarengatik: gure komunitateari ez zaio kontsultarik egin eta alde bakar batek gure foru araubidea aldarazi du.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du tinko zuzen dakion Gobernu zentralari, inongo neurririk ez dezan hartu sendagaiak, sistema publikoak finantziatuak, eskuratze-ko gaurko baldintzetan eragin negatiboa izanen duenik.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Foru Komunitatean sendagaiak finantziazio publikotik kanpo uzteko aurreikusitako neurriak har ez ditzan.

F saila:
GALDERAK

Zenbait Kontseilarik egindako obren esleipenei buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak zenbait Kontseilarik egindako obren esleipenei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoren babesean, ondoko galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Parlamentuko Herrilan Batzordean izandako agerraldian, Palacios jaunak bere aurretik izandako kontseilariak aipatu zituen esanez lanak "behatzez" esleitzen zituztela. Era berean, esan zuen Departamentua susmopean zegoela. Azkenik, aipatu zuen (ez oso argi) Departamentura heldu zenean "suge zulo" bat aurkitu zuela.

Egunkarietan horrelaxe bildu zen; Palacios jaunak argi zehaztu zuen ez zela López Borderías jauna izan obrak "behatzez" esleitu zituena.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. López Borderías jaunak esleitutako obren zerrenda eta haietan erabilitako prozedura. 5 milioi pezeta baino gehiagoko zenbatekoetan.

2. López Istúriz jaunak esleitutako obren zerrenda eta haietan erabilitako prozedura. 5 milioi pezeta baino gehiagoko zenbatekoetan.

3. Alli Aranguren jaunak esleitutako obren zerrenda eta haietan erabilitako prozedura. 5 milioi pezeta baino gehiagoko zenbatekoetan.

4. Ibero Elía jaunak esleitutako obren zerrenda eta haietan erabilitako prozedura. 5 milioi pezeta baino gehiagoko zenbatekoetan.

5. Departamentua susmopean dagoela esan ahal izateko Kontseilariak dituen proben zerrenda zehaztua, agiriak aldean dituela.

6. "Suge zulo" bat hitzak esateko dituen proben zerrenda zehaztua eta dokumentatua eta hitz horiekin zer esan nahi duen argitzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Foru Parlamentarioa: Andrés Basterra Layana

Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion.

Berriki, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak bidalitako galdera parlamentario baten erantzunaren bidez, jakin ahal izan dugu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 1997ko apirilaren 18an baimena eman ziola Nafarroako Unibertsitateko Zientzien Fakultateari fauna iberiarren espezie guztiei buruzko ikerlanak burutzeko.

Baimen horren indarraldia 2001 urtean bukatuko da eta sinatzeko orduan aintzat hartu omen ziren Nafarroako Unibertsitatearen erantzukizun pedagogiko eta zientifikoa, eta besterik gabe onartu zen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak nahitaez erraztu behar dituela erakunde horren ikerlanak, antzeko helburuak dituzten gainerako entitateenak bezala.

Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimen mota hauei buruz ondoko galderak erantzuteko eskatu da:

1. Zenbat baimen sinatu ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak espezie babestuekin edo bestelako espezieekin ikerlanak egiteko?

2. Zein entitateri eman zaizkie baimenak, Espezie naturalen basa flora eta faunaren kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/89 Legearen 26 eta 28. artikuluen aplikatuz eta Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/93 Foru Legearen 9. artikulutik 14. artikulura bitartekoak aplikatuz?

3. Horietako baikoitziari buruz, puntu hauek ezagutu nahi ditugu: aplikazio eremua, baimenak indarra izanen duen aldia, baimendutako espezieak eta baimen horiek emateko baldintza osagarriak.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espedienteari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Altsasuko Aluminios de Alzania enpresari ezarritako ingurugiro arloko zehapen-espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Altsasuko Aluminios Alzania enpresak, dirudiezez, zonaldeko ekosistema larriki kaltetu dezaketen arazoak ari da sortzen.

Badakigu enpresa honek, urte eta erdi baino gehiago daramala porrotean eta kolokako egoeran funtzionatzen.

Larria da zepak eten gabe kanpoan estalperik gabe pilotzea, eta horren ondorioak.

Ingurugiro Departamentuak zehapen espedientea hasi zuen.

Hori guztia dela eta, ondokoa jakin nahi da:

- Espedientearen izapidatze egoera Ingurugiro Departamentuan.

- Zer egin du Departamentuak ingurugiroaren ikuspegitik, eta enpresaren egoera kontutan izanik, oso arriskutsua den jarduera hori geldiarazteko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

“Itxaropenaren Telefonoa” aurrekontu-lerroaren betetze mailari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak “Itxaropenaren Telefonoa” aurrekontu-lerroaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parla-

mentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

98ko aurrekontua eztabaidatu zenean, Eusko Alkartasunak Ongizate Departamentuari aurkezturiko emendakina onetsi zen, itxaropenaren telefonoari buruzkoa, hain zuzen.

Hori horrela, galdera hau aurkeztu den egunean, ondokoak jakin nahi ditugu.

- Lerro horren betetze egoera.

- Gastu hori ez bada egin, horri buruzko azalpen arrazoitua.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

“ADACEN” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak “ADACEN” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parla-

mentuko Erreklamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

98ko aurrekontua eztabaidatu zenean, Eusko Alkartasunak Ongizate Departamentuari aurkezturiko emendakina onetsi zen, ADACENi buruzkoa hain zuzen.

Hori horrela, galdera hau aurkeztu den egunean, ondokoak jakin nahi ditugu.

- Lerro horren betetze egoera.
- Gastu hori ez bada egin, horri buruzko azalpen arrazoitua.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Hurrengo eskolaratze kanpainako leloei buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo eskolaratze kanpainako leloei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Talde Parlamentariaren Ele-duna den Patxi Zabaleta Zabaletak, Ganbararen Arautegiaren 184. artikularen eta ondokoan araberak, Hezkuntza eta Kultura Sailburuari ondoko galdera hauek zuzentzen dizkio idatziz erantzun dezan.

Martxoaren 30ean, apirilaren 24a bitarte, heldu den ikasturtean eskolan ikasten hasiko diren haurren aurrematrikulazio kanpainari ekinen zaio. Aurreko urteetan nafar Gobernuak bere kanpaina propioa burutu du.

Gaiaren garrantzia handia denez, kanpainaren emaitzak ahalik eta aberatsenak izan daitezten, honako xehetasun hauek eman ditzan eskatzen dio:

1. Zein izanen dira aurtengo kanpainaren leloak?
2. Zenbat diru eta zein kontzeptutan inbertituko du Gobernuak kanpaina honetan?
3. Zein bitarteko erabiliko du irakaskuntza publikoa bultzatzeko?
4. Zein bitarteko erabiliko du euskarazko irakaskuntza bultzatzeko?

Iruñean, 1998ko martxoaren 5ean

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

Haurdunaldia nahita eteteari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak haurdunaldia nahita eteteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion.

Nafarroan haurdunaldia eteteari buruz ideia farisearra dago; ondorioz, Legea, haurdunaldiak legean ezarritako kasuetan eteteari dagokionez, ez da Nafarroan aplikatzen ari.

Nahiago da haurdunaldia eten beharrean dauden emakumeei mota guztietako oztopoak gaindiaraztea, gero beste autonomi erkidego batera eramateko Nafarroako Administrazioak gastuak ordainduta, zinismo politikoaren eta zurikeria garbienaren adibide argia emanez.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak politika horrekin jarraituko al du?

2. Zenbat abortu egin ziren 96 eta 97 urteetan Nafarroako Aurrekontuen kargura?

3. Zein autonomi erkidegotan egin ziren abortu horiek eta zein Departamentuk egin zituen horretarako egin beharreko kudeaketak?

4. Zebat ordaindu zuen Nafarroako Administrazioak eta zein aurrekontu-sailaren kargura?

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkarteak egindako eskaerei buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkarteak egindako eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun dakion:

Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkarteak Foru Administrazioan, zehazki Merkataritza eta Kontsumo Zerbitzuan, aurkeztu dituen eskaeren berri izan dugu. Jakin nahi genuke zein den Nafarroako Gobernuak horri buruz egiten duen balorazioa.

Iruñean 1998ko martxoaren 9an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren apirilaren 25eko 498 Foru Aginduren bidez ondokoa onetsi zen: zentral hidroelektriko txiki, arrain-haztegi eta antzekoetan, gaurregun erabiltzen direnetan, ura hartu eta bideratzeko lanek uretako nahiz lurreko faunan daukaten eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzetarako urteroko deialdia.

Foru Agindu horren xedeak ondoko puntuak aipatu zituen: amuarrain- eta izokin-ibailetako arrain-mailadiak edo pasabideak; egitura hidraulikoak, indarreko legearen arabera eskatzen ahal den gutxieneko ur-etorria berrmatuko dutenak, ins-

talazioak ukitzen duen ibai tartean; arrainei ura sartu eta ateratzeko kanaletara pasatzea eragotzi-ko dien babesgailua; kanaletara erortzen diren animailendako malda erako ateraguneak; kanalen gainean, faunarendako pasabideak.

Dirulaguntza horiek jasotzeko -zenbatekoak ez du proiektuaren kostuaren ehuneko 50 gaindituko-, eskaeraren xede den jarduerak funtzionamenduan behar zuen 1991eko urtarrilaren 1a baino lehen.

Zentral hidroelektriko txiki, arrain-haztegi eta antzekoetan, gaurregun erabiltzen direnetan, ura hartu eta bideratzeko lanek uretako nahiz lurreko faunan daukaten eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketa, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako bakoitzak?

3. Zein egoeratan daude hasitako lanak? Jarduketa horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko geratu al da?

4. Zein izan da Foru Agindu honetako dirulaguntzetarako utzi den guttizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Abenduaren 27ko 389/1993 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako salmidoen arrain-hazkuntzari buruzko plangintza egin zuen. Dekretu horren bidez aipatu espezieen arazoizko probetxamendua eta haiek etorkizunean mantendu eta berreskuratzea bateragarri egiten ziren.

Plangintza-jarduera hori garatzeko, Nafarroako Gobernuak, irailaren 2ko 309/1996 Foru Dekretuaren bidez, Arakil ibaiaren arroan Salmonidoen Arrantza Antolatzeke Plana onetsi zuen. Antolamendu Plan horrek arrain-hazkuntzako baliabideak kudeatzeko segitu beharreko jarraibideak eman zituen, hain zuzen ere haiek mantentzeko eta kudeatzeko. Horretarako populazioen ekologian elkarrekin lotuen dauden bi inguruabar biltzen ditu: habitata eta baliabideak.

Planak Arakil ibaiaren arroa hartzen zuen, betiere Foru Komunitatearen mugen barruan, eta jarduketa baltzuk biltzen ditu, Arakil ibaian bertan egitekoak, habitata leheneratzeko xedez.

Arakil ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruzko ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Jarduketaren zein fasetan daude Leitzarango eta Sakanako autobietako obrek kalteturiko ibaiertz eta ubideak bertako espezieekin lehenar-

tzeko lanak? Garatzen ari al dira aipatu obretako Ingurugiro Eragineko Aiorptenetan ezarri ziren neurriak? Jarduketaren zein fasetan daude ibaian eta haren inguruan (zubiak eta iraganbideak) eraikitako egiturek sorturiko kalteak zuzentzeko lanak? Kasu bakoitzerako ezarri zen Begiratze eta Kontrol Plana aplikatzeke sorturiko zein jarduketa egin dira? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

2. Jarduketaren zein fasetan dago Larraun ibaiko ertzak birlandatzeko lanak eta aniztasunera egokitzeko ibai-hondoak egokitzeko lanak? Zein egoeratan dago Urdalurreko urtegiaren eraikuntzak kalteturiko Altzania ibaiko inguruneak landarez leheneratzeko lanak? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

3. Jarduketaren zein fasetan dago Udarbe (Arteta) ibaiko ertzak eta ubidea dragatzeko lanak, ukitutako tartean? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

4. Jarduketaren zein fasetan dago Arakil ibaiko ondotik aipatzen diren uharketan arrainak igartzeko mailadiak eraikitze lanak: Cementera, Urdiaingo errota, Iturmendiko errota, Etxauriko zentrala? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

5. Jarduketaren zein fasetan daude ondotik aipatzen diren uharketan arrainak igartzeko mailadiak eraikitze lanak: Basaburu ibaiko Berasaluzeko zentrala eta Artius ibaiko lau uharketan? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

6. Jarduketaren zein fasetan daude ondotik aipatzen diren tokietan arrainak igartzeko mailadiak eraikitze lanak edo erabiltzen ez diren eta arrainendako gaindiezinak diren mailadiak sunsitzeko lanak: Ziordiko errota, Ziordiko uharka, Altsasuko errota, Altsasuko zentrala, Etxarri-Aranazko zentrala, Lakuntzako zentrala, Uharteko zentrala eta Ihabarko Elektra? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

7. Jarduketaren zein fasetan daude ondotik aipatzen diren tokietan arrainak igartzeko mailadiak eraikitze lanak edo erabiltzen ez diren eta arrainendako gaindiezinak diren mailadiak sunsitzeko lanak: Alliko uharka, Mugiroko errota eta Urritzako errota? Noizko aurreikusi da lan horiek bukatzea?

8. Bestelako zein jarduketa egin da Arakil ibaian Salmonidoen Arrantza Antolatzeke Plana

onetsi zenetik urte eta erdi baino gehiago iragan denean? Noizko aurreikusi da lan horiek hastea eta bukatzea?

Iruñean, 1997ko martxoaren 9an
Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean hurren galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro eta Lurraldearen Antolamendu Kontseilariaren 1997ko maiatzaren 8ko 543/1997 Foru Aginduak zera ezarri zituen: oinarriak, toki entitateekin edo elkartze-erakundeekin ibaiak leheneratzeko hitzarmenak sinatzeko.

Entitate hauek txosten-proiektua aurkeztu behar zuten, egin nahi zituzten jarduerekin eta horientzako egutegiarekin. Jarduketa konkretua

zehaztu ondoren, Natura Zaintzeko Zerbitzuaren iritziaren arabera eta zerbitzu horrek teknikoki zuzendurik, hitzarmen bat egingen zen; hitzarmen horretan egin behar ziren lanen zenbatekoa ezarriko zen eta horrek dirulaguntza ahalbidetzen zuen, hain zuzen ere, proiektuaren kostuaren % 75 gutxienez eta % 90 gehienez.

1997an ibaiak leheneratzeko toki entitateei edo elkartze-erakundeei emaniko dirulaguntzei buruzko ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketa, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako bakoitzak?

3. Zein egoeratan daude hasitako lanak? Jarduketa horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko geratu al da?

4. Zein izan da Foru Agindu honetako dirulaguntzetarako utzi den guztizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an
Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Natura Zaintzeko Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen duen Legeak ematen dion eskuduntza erabilita, 1997ko dragatze, ibaie-tako ibilguen garbitze eta erreken garbitze kanpaina arautzea, eta horretarako 431/1997 Foru Agindua eman zuen, apirilaren 22koa, jarduera hauei dirulaguntza emateko irizpideak ezarri zituen eta baita lan horiek betetzeko irizpideak ezarri zituen.

Udalek eta kontzejuek 1997an eginiko dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak, Nafarroako Gobernuak emandako makinekin eginak baziren, aipaturiko Foru Aginduak dirulaguntza ematen zien, hain zuzen ere osoko likidazioaren %50 fondo galdura

1997an dragatze lanak eta baita ibaien ibilguen eta erreken garbitze lanak egiteko dirulaguntzei buruzko ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketak, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako bakoitzak?

3. Zein egoeratan daude hasitako lanak? Jarduketak horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko geratu al da?

4. Zein izan da Foru Agindu honetako dirulaguntzetarako utzi den guztizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAUEMAILEAK

58/1998 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 58/1998 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jartzea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko ahalmena.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

58/1998 Foru Dekretua, otsailaren 23koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n izenpetu zuten Hitzarmen Ekonomikoko 30. artikulua ezartzen du Nafarroako Zerga Berezien ordainarazpenari dagokionean, Estatu mailan uneoro indarra duten oinarritzko printzipioak, eta arau sustantibo eta formazkoak izanen direla aplikagarri.

Bestalde, indarra duen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari behar diren arauak emateko, hain zuzen ere Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergaren araubide berriari egokitzeko Akordioan ezarri bezala. Aipatu Akordioa ulertu behar da Hitzarmen Ekonomiko berriari lotua, izan ere horrek indarra hartzen duen unetik espreski inda-

rik gabe uzten du egokitzapen hori onesten duen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Zerga Berezien araubide arrunta arautzen duen abenduaren 28ko 38/1992 Legearen aldaketaren ondorioz beharrezkoa da orain, aipatu Xedapen Gehigarriaren bigarren lerroaldean agindutakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behinekotasunez indarra izanen duten arauak Foru Dekretu baten bidez ematea. Arau horiek onesten diren hamar eguneko epea izanen da Nafarroako Parlamentura igortzeko, honek behin betikoz onetsi ditzan.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko otsailaren hogeita hiruko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legea, abenduaren 30ekoa, aldatzea.

1998ko urtarrilaren 1etik aitzina ondorioak izanen dituela, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 31. artikulua hone-laxe geldituko da:

“31. artikulua. Zerga tasa.

Zerga eskatuko da ondoko zerga tasen arabera:

1. Tarteko produktuak, hartutako alkohol gradu bolumetrikoa bolumenaren 100eko 15 baino gutxiago dutenak: 4.575 pezeta hektolitroko.

2. Tarteko beste produktuak: 7.625 pezeta hektolitroko.”

Xedapen gehigarria

Foru Dekretu honetan biltzen diren arauak behin-behinekoak izanen dira, harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

54/1998 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 16koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina onesten duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrak entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 54/1998 Foru Dekretua, otsailaren 16koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina onesten duena, aurkeztu dela jakitun dagoela adieraztea, 1998ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko ogeita hamalagarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoa betez.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

54/1998 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 16koa, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina onesten duena

1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko hogeitamalagarren xedapen gehigarrian, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio prestatu eta onets dezan Nekazaritzako Finantzaketaz gaur egun indarrean dauden xedapenen testu bategina, betiere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. artikuluan xedatutakoaren babesean eta Legegintzako Foru Dekretuaren bidez.

Horren ondorioz, aipatu baimenak eragina izan dezan Testu Bategin hau prestatu da, bere baitan bildurik gaur egun nekazaritzako finantzaketan manatzen duten lege mailako arau iraunkor eta orokorrak, Foru Komunitateak onetsitako zenbait testu araugiletan sakabanaturik zeudenak.

Horiek denak horrela, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hemezortziko otsailaren hamaseian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina onesten da, horrela betetzen delarik 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko hogeitamalagarren xedapen gehigarria, honen eranskin gisa datorrena.

2. artikulua. Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio, haren Erregelamenduko 158. artikulua betetzeko.

ERANSKINA

Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu bategina

I. TITULUA

Xedea eta edukia

1. artikulua. Xedea.

Nafarroako Gobernuak, Legegintzako Foru Dekretu honetan ezartzen diren laguntzen bitartez:

a) Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako egituren garapena eta ekoizpeneko baliabideen hobekuntza sustatuko ditu, egitura aldetik edo une jakinetan aipatu helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren inbertsioak, ekoizpen-ondasun oinarrikoetan egiten direnak, finantzatuz.

b) Asegurupean sar daitezkeen nekazaritzako ekoizpen eta arriskuen aseguru egitea bultzatuko du.

c) Asegurupean sartzen ez diren nekazaritzako ondasunetan gertatzen diren galerak arinduko ditu.

2. artikulua. Edukia.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren helburuen esparruan, Legegintzako Foru Dekretu honetan aipatzen diren Nafarroako Gobernuaren ekimenek honako xede hauek izanen dituzten jomugan:

a) Nekazaritzako egituren eragina hobetzea.

b) Ureztaketa-lur berrietarako eta lehendik daudenak hobetzeko inbertsioak.

c) Herri-ondasunak babestu eta hobetzea, horretarako larreak sortu, herrilurrak mugatu,

eskuratu, menpekotzak kendu, eskriturak egin eta Jabetzaren Erregistroan sartzeko bidea emanen duelarik.

d) Laboreek eta abereek jasandako hondamezko kalteez arduratzea.

e) Nekazaritzako ondasunen gaineko aseguruak kontratatzeako kostuan esku hartzea.

2. Aurreko zenbakian aipatu xedeetara zuzendutako jarduerak finantzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Legegintzako Foru Dekretu honetan ezarritako baldintzetan, honako onura hauek ematen ahalko ditu:

a) Dirulaguntzak.

b) Maileguak, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura edo finantza-entitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenenera.

c) Finantza entitateek emandako mailegu edo kredituak bermatzeko abalak.

II. TITULUA

Nekazaritzako egituren eragina hobetzea

3. artikulua. Xedea.

Titulu honen barrenean sartuko dira:

a) Kontseiluaren 1997ko maiatzaren 20ko 950/1997 Erregelamenduan (EK) aurreikusitako ekintza bateratuaren azpiko inbertsio eta neurriak.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatutako laguntza nazionalak, maiatzaren 20ko 950/1997 Erregelamenduko (EK) 12. artikuluan onesten direnak.

c) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak biltegitiratu eta baldintza egokietan jartzeko eraikin eta ekipoak eskuratu, eguneratu eta egokitzeko inbertsioak, eta produktu horiek tratatu, eraldatu eta merkaturatzekoak, bai eta kapitalean esku hartzeko inbertsioak ere, eraldaketa enpresetan, merkataritza-sare edo kanaletan, lehendik dauden edo sortu berrietan, egiten direnak, betiere, onuradunek betetzen badituzte 5. artikuluko 2. idazatian ezarritako baldintzak.

d) Honako xede hauek dituzten inbertsioak:

_Lurzatiak berrantolatzeako prozesuen ondorioz aldaketak jasan dituzten laborantza-lurak berrosatzea.

_Osasun-kanpainen ondorioz hil behar izan diren behien ordezkoak eskuratzea.

_Nafarroako Gobernuak interes sozialekotasun jo dituen lurak erostea.

_Kooperatibek eta eraldakuntzako nekazaritza-sozietateek makineria erostea, erosketa hori bazkide guztiek elkarrekin eta batera erabiltzeko denean.

e) Merkaturatzeko nekazaritza-kooperatibek sinatzen dituzten kanpaina-kredituen finantzaketa.

4. artikulua. Onurak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onura hauek ematen ahalko ditu:

a) 3. artikuluko a), b) eta d) idazatian aipatzen diren inbertsio eta neurrietarako, erregelamendu bidez ezartzen direnak, gehienez ere kapitalaren 100eko 25a, dirulaguntza zuzenaren bidez, eta gainerakoa, korrituen gehienez ere zortzi puntu bitarte, balio bereko laguntzaren modura, aipatu inbertsioak finantzatzeko lortzen diren mailegu edo kredituen gainean eta gehienez ere hamabost urteko epean. Milioi eta erdi pezetatik beherako inbertsioetan, korrituen hobariaren ordez kapitalaren gaineko dirulaguntza zuzena ematen ahalko da.

Aipatu laguntza horiek ez dituzte gaudituko maiatzaren 20ko 950/1997 Erregelamenduan (EK) eta haren osagarri edo ordezko diren gainerako xedapenetan ezarritako mugak.

b) 3. artikuluko c) idazatian aipatu inbertsioetarako, erregelamendu bidez ezartzen direnak, kapitalaren gaineko dirulaguntza zuzenaren bidez edo haren balio bereko laguntza, korrituen hobaria eginez, gehienez ere zortzi puntu bitarte, aipatu inbertsioak finantzatzeko lortzen diren mailegu edo kredituen gainean eta gehienez ere hamabost urteko epean.

c) 3. artikuluko e) idazatian aipatu inbertsioetarako, erregelamendu bidez ezartzen direnak, gehienez ere korrituen lau puntu bitarte, lortzen diren mailegu edo kredituen gainean.

2. Ateratzen diren mailegu edo kredituen gainean, hobaria aplikatu ondotik, gutxienez 100eko 3aren korritu-tasa aplikatuko da.

5. artikulua. Onuradunak.

1. Aurreko artikuluko a) idazatian ezarritako laguntzak eskatzen ahalko dituzte ekintza bateratuaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituztenek, maiatzaren 20ko 950/1997 Erregelamenduan (EK) xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko artikuluko b) idazatikoa laguntzen onuradun izaten ahalko dira nekazari edo abeltzainen batasunak, kooperatiba, eraldakuntza nekazaritza-sozietate edo elkarketako bestelako antolamendu juridikoa dutenak, baldin eta, gutxie-

nez, elkartearen kapitalaren ehuneko berrogeita hamar eta elkarre horietako organo erabakitzaile-etako ordezkarien gehiengoa badago nagusiki nekazari direnen esku edo besteren kontura diharduten eta Nekazaritzako Gizarte Segurantzaz sarturik dauden langileen esku.

Dena dela, edozein nekazari, abeltzain edo finken jabe eskatzen ahalko ditu 3. artikuluko d) idazatian aipatu inbertsioetarako aurreko artikuluko b) idazatian ezartzen diren dirulaguntzak.

III. TITULUA

Ureztaketa-lurren gaineko ekimenak

6. artikulua. Kontzeptua.

1. Titulu honen barrenean sartzen dira ureztaketa-lur bihurtzeko edo lehendik daudenak hobetzeko inbertsioak, hain zuzen ere, Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen babesean onetsi ziren Lurraldeko Obra eta Hobekuntza Planetan nekazaritzako interes pribatukotzat jotako obretan egiten direnak, baldin eta burutzen badira Plan bakoitzean zehazten den epearen barrenean eta lehenbiziko instalaziorako badira.

2. Titulu honetan ezarritako onurak eskuratzen ahalko dira gutxienez ureztaketako oinarritzko azalerara (hurrengo lerroaldean zehazten denaren arabera) iristen diren lurretan egin gogo diren inbertsioetarako, baldin eta gainditzen ez badute ureztaketako eskualde jakin hartako ustiategiaren oinarritzko azaleraren gehienekoa. Lurren edukiera handiagoa bada ureztaketako ustiategiaren oinarritzko azaleraren gehienekoa baino, neurri horren gaineko soberakinarako ez da eskubiderik izanen ezarritako onurarik jasotzeko, nekazaria nagusiki nekazaritzat hartzen denean izan ezik, horrelakoetan onura hauek zabaltzen baitira ustiategiaren oinarritzko azaleraren gehienekoaren halako biren tamainako lurretaraino.

Ureztaketako oinarritzko azalera da, luze-zabalean, eskualde jakineko ustiategiaren oinarritzko azalerarentzat ezartzen den ureztaketarako gutxienekoaren tamaina duen gutxieneko lur-azalera. Azalera hori finka bakar batek edo elkarren ondoko batek baino gehiagok osatzen ahalko dute, jabe bakarrarenak nahiz batenak baino gehiagorenak izan, baldin eta unitate bakarra osatzen badute ureztaketa diseinatzeko.

7. artikulua. Onurak.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren inbertsioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haien kostuaren ehuneko berrogeita bosteko dirulaguntza ematen ahalko du, 75/268/EEK

Zuzentarauko 2. eta 3. artikuluetan aipatzen diren eskualdeen kasuan, eta kostuaren ehuneko hogeita hamabosta gainerako kasuetan.

2. Dena dela, aurreko idazatian ezarritako dirulaguntzak mugatuko dituzte Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren inbertsio babesgarri gehienekoaren moduluek.

3. Onura hauekin batera beste administrazio publiko batzuetatik lortzen den gainerako edozein jaso daiteke, baina horrelakoetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa soil-soilik aplikatuko da beste administrazioak finantzatzen ez duen zatiaren gainean.

8. artikulua. Onuradunak.

Aurreko artikuluan ezartzen den finantzaketaren onuradun izaten ahalko dira nekazariak edo nekazaritzako ustiategiaren titularren batasunak, titular direla edo lurrak badituztela behar bezala egiaztatzen dutenak, baldin eta laguntzaren xedea den lur-azalera sartzen bada Legegintzako Foru Dekretu honetako 6.2 artikuluan ezartzen diren mugen barrenean eta finantzaketa eskatzen badute, bai bakarka, bai ureztatzaile-elkarteren baten bidez edo helburu honetarako sustatzen den bestelako elkarketa-modu legezkoren baten bitartez.

IV. TITULUA

Herri-ondasunen babesa

9. artikulua. Kontzeptua.

Titulu honen barrenean sartzen dira:

1. Honako xede hauetarako egiten diren inbertsio eta gastuak: herrilurrak eskuratu, mugatu eta mugarritzea, menpekotzak, bazkatokiak edo jabiariaren bestelako muga batzuk kentzea, bai eta ondasun horien eskriturak egin eta Jabetzaren Erregistroan sartzea.

2. Herrilurretan larreak eta eskortak sortu eta hobetzeko asmoz egiten diren inbertsio eta gastuak.

10. artikulua. Onurak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren jardueretarako honako onura hauek ematen ahalko dira:

1. Herri-ondasunak mugatzeagatik sortzen den gastuaren ehuneko 100eko dirulaguntza.

2. Ehuneko 20tik 40ra bitarteko dirulaguntza, menpekotzak, bazkatokiak eta herri-ondasunen-tzat zergagarri diren bestelako kargak kentzea, bai eta korrituen 4tik 8 puntura bitarteko laguntza, gastuen gainerakoa finantzatzeko lortzen diren

maileguen gainean. Mailegu horiek amortizatzeko epea 12tik 20 urtera bitartekoa izanen da.

3. Ehuneko 20tik 40ra bitarteko dirulaguntza, herrilur berriak eskuratzeko, eta korrituen 4tik 8 puntura bitarteko laguntza, gastuen gainerakoa finantzatzeko lortzen diren maileguen gainean. Mailegu horiek amortizatzeko epea 12tik 20 urtera bitartekoa izanen da. Laguntza hauek jasotzeko eskubidea izateko, Nafarroako udalek edo kontzejuek Nafarroako Gobernuari eskatu eta lortu beharko dute kasuan kasuko ondasunak eskuratzeari interes publikokoa dela deklaratzeari.

4. Ehuneko 12tik 25era bitarteko dirulaguntza, herri-ondasunak eskuratu eta Jabetzaren Erregistroan sartzeagatik sortu gastuen gainean.

5. Korriturik eragiten ez duten maileguak, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, herrilarrak sortzeko egiten diren inbertsioetarako, inbertsioaren pareko diru-kopurua hartzen dutenak, amortizatzeko epea 12tik 20 urtera bitartekoa delarik.

11. artikulua. Onuradunak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren onurak bakar-bakarrik ematen ahalko zaizkie Nafarroako udal, kontzeju eta gainerako administrazio-entitatei.

V. TITULUA

Hondamenezko kalteak

12. artikulua. Kontzeptua.

Titulu honetan aipatzen diren onura jasotzen ahalko dira nekazaritza nahiz abeltzaintzako ondasunetan jasandako galerengatik, baldin eta dagozkien arriskuak ez badaude sarturik Nafarroan aplikatzekoak diren nekazaritzako aseguruetan, eta Nafarroako Gobernuak espreski deklaritzen badu arrisku horiek babesgarriak direla, Legegintza Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Onurak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren galerek ekartzeko dituzten gastu eta inbertsioak finantzatzeko, honako onura hauek ematen ahalko dira:

Korrituen zortzi punturainoko laguntza, xede horretarako lortzen diren gehienez ere 20 urteko epeko maileguen gainean. Hobarria aplikatu ondoren ateratzen diren mailegu edo kredituen korritutasuna ez da 100eko 3 baino txikiagoa izanen.

14. artikulua. Onuradunak.

Titulu honetan aipatzen diren onurak eskuratzeko ematen ahalko ditu edozein nekazari, abeltzain edo

landa-finken jabek, baldin eta kaltetutako ondasunak Nafarroan badaude.

Nekazari edo abeltzainek zer nahiago duten hautatzen ahalko dute, 13. artikuluan ezarritako laguntza edo haren balio bereko dirulaguntza zuzena.

VI. TITULUA

Nekazaritza eta Abeltzaintzako aseguru-sarietarako laguntzak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

15. artikulua. Xedea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Legegintzako Foru Dekretu honetan oinarriturik, laguntzak ematen ahalko dizkie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean kokatutako nekazaritzako ondasunen gainean aseguruak hitzartzen dituzten nekazari eta abeltzainei.

16. artikulua. Laguntza-motak.

Titulu honetan ezarritako laguntzak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Nafarroan aplikatzeko den unean uneko nekazaritzako aseguru konbinatuen planaren barrenean hitzartutako aseguruaren kostua ordaintzea.

b) Laboreen, abeltzaintzako ekoizpenen eta berotegietako egitura nahiz instalazioen arriskuak aseguratzen dituzten entitate pribatuekin hitzartutako aseguruaren kostua ordaintzea, baldin eta aseguru horiek ez badaude sarturik Nafarroan aplikatzekoak diren nekazaritzako aseguru konbinatuen planaren barrenean.

17. artikulua. Bateriaezintasuna.

Aurreko artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren laguntzak ematen dira mota bakoitzerako dagokien kapituluetan zehazten den moduan, eta bata bestearekin bateraezintasunak izanen dira labore edo abeltzaintzako ekoizpen bererako.

II. KAPITULUA

Nafarroan aplikatzeko den unean uneko nekazaritzako aseguru konbinatuen planaren barrenean hitzartutako aseguruaren kostuaren ordainketa

18. artikulua. Helburua.

Harako 16. artikuluko a) letretan ezarritako laguntzak aplikatuko zaizkie nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planaren barrenean sartzen diren aseguru-lerroei, Nafarroako Gobernuak era-

bakitzen duen haiei, horretarako irizpide hau erabiliko duelarik: dirulaguntzak emanen dira aseguru-lerro berri edo lehendik errotuetarako, uste bada edo, bestela, egiaztatzen bada, sarrera txikia izan dutela aseguruaren kostua garestia delako.

19. artikulua. Aseguru-lerroak onetsi eta argitaratzea.

Aurreko 18. artikuluko horretan ezarritakoa betetzeko, Nafarroako Gobernuak urtero onetsi eta argitaratuko ditu 16. artikuluko a) letran ezarritako laguntzak jasotzen ahal dituzten aseguru-lerroak, nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planean sarturik dagoen aseguru bakoitzaren ezaugarrien berri duen une berean.

20. artikulua. Laguntzak emateko prozedura.

1. Nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planean barrenean, aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituzten aseguru-lerroetan, polizak sinatzen dituen nekazariak edo abeltzainak, edo aseguru-hartzaileak, aseguruaren kostuagatik dagokion dirulaguntza eskatzen ahalko dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, horretarako dokumentazio hau aurkeztu beharko duelarik:

a) Laguntza jasotzeko eskabidea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan ematen den ereduaren arabera betea.

b) Sinatutako polizaren fotokopia.

2. Laguntza jasotzeko eskabidea gehienez ere hogeita hamar eguneko epearen barrenean aurkeztu beharko da, poliza sinatzen den egunetik hasita.

3. Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, eta bidezkotzat jotzen diren egiaztapenak egin ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, hala erabakitzen badu, ezarrita dagoen laguntza eman eta onuradunari kontzesioaren ebazpen administratiboa jakinaraziko dio.

21. artikulua. Dirulaguntzaren kopurua.

Harako 16. artikuluko a) letran aipatzen diren laguntzak gauzatzeko, aseguruaren kostua ordaintzeko dirulaguntza emanen da, Estatuko Nekazaritza-Asegurueterako Entitateak xede bererako emandakoa kontuan hartuz, gehienez ere haren kostuaren 100eko 50erainokoa. Dena dela, dirulaguntza guztien batuketa ezin izanen da aseguruaren kostuaren 100eko 80tik gorakoa.

III. KAPITULUA

Nafarroan aplikatzekoa den nekazaritzako aseguru konbinatuen planaren barrenean sarturik ez dauden laboreen eta abeltzaintzako ekoizpenen arriskuak aseguratzeko, entitate pribatuekin hitzartutako aseguruaren kostua ordaintzea

22. artikulua. Helburua.

1. Harako 16. artikuluko b) letran ezarritako laguntzak aplikatuko dira, Nafarroan aplikatzekoa den urteko planean ez sartzeagatik nekazaritzako aseguru konbinatuen esparrutik kanpoan dauden aseguru-entitate pribatuekin, nekazaritza edo abeltzaintzako ekoizpenen gainean, dagokion aseguru sinatuz, babesten diren arriskueterako.

2. Dena dela, aurreko idazatiak aipatzen dituen laguntzak jasotzen ahal dituzten aseguruiek babestu beharko dituzte Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Legean eta dagokion Erregelamenduan eta 16. artikuluko b) letran aseguragarritzat hartzen diren arrisku eta ekoizpenak.

23. artikulua. Aseguru-lerroak onetsi eta argitaratzea.

Aurreko 22. artikuluko horretan ezarritakoa betetzeko, Nafarroako Gobernuak urtero onetsi eta argitaratuko ditu 16. artikuluko b) letran ezarritako laguntzak jasotzen ahal dituzten aseguru-lerroak.

24. artikulua. Laguntzak eskatzeko prozedura.

1. Aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituzten aseguru-lerroetan, polizak sinatzen dituen nekazariak edo abeltzainak, edo aseguru-hartzaileak, aseguruaren kostuagatik dagokion dirulaguntza eskatzen ahalko dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, horretarako dokumentazio hau aurkeztu beharko duelarik:

a) Laguntza jasotzeko eskabidea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan ematen den ereduaren arabera betea.

b) Sinatutako polizaren fotokopia.

2. Laguntza jasotzeko eskabidea gehienez ere hilabeteko epearen barrenean aurkeztu beharko da, poliza sinatzen den egunetik hasita.

3. Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, hala erabakitzen badu, ezarrita dagoen laguntza eman eta onuradunari kontzesioaren ebazpen administratiboa jakinaraziko dio.

25. artikulua. Dirulaguntzaren kopurua.

1. Harako 16. artikuluko b) letran aipatzen diren laguntzak gauzatzeko, aseguruaren kostua

ordaintzeko dirulaguntza emanen da, gehienez ere haren kostuaren 100eko 50erainokoa.

Babestutako aseguru-lerro bakoitzari dagokion dirulaguntza-portzentaia zehaztuko da 23. artikuluan aipatzen den erabakian.

2. Nafarroako Gobernuak finkatzen ahalko ditu dirulaguntzaren gehienekoak aseguru bakoitzeko.

VII. TITULUA Guztientzako xedapenak

26. artikulua. Onurak emateko prozedura.

1. Legegintzako Foru Dekretu honek aipatzen dituen onurarako eskabideak Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura zuzendu behar dira.

2. Eskatzaileek eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu beharko dute honako baldintza hauek betetzen dituztela:

a) Bizilekua Nafarroan dutela.

b) Inbertsioak direnean, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden ondasunetan egin direla.

3. Inbertsioak direnean, eskabidea eta gero, memoria tekniko-ekonomikoa idatziko da, bertan azaltzeko inbertsioa egin aurreko egoera, egin gogo den inbertsioa edo hobekuntza bera eta aurreikusitako azken egoera, bai eta inbertsioaren finantza-planteamendua ere.

4. Onuraduna izan daitekeenari eskatzen zaionean aurkezteko azterlanak, txostenak edo proiektuak, ez doakoak, laguntza eskabiderako osagarri direnak, haien kostuak sartuko dira, ondorio guztietarako, lagungarria den inbertsioaren zati bezala.

27. artikulua. Kontzesiorako ebazpen administratiboa.

1. Legegintzako Foru Dekretu honetan ezarritako onurak, erregelamendu bidez erabakitzen den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoaren eskutik jasoko dira.

2. Kontzesiorako ebazpen administratiboan zehaztuko da noiz eta nola ordainduko diren onurak.

3. Onuradunek betetzen ez badituzte kontzesiorako ebazpen administratiboan onurak jasotzeko ezarritako baldintzak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baliogabetu edo murriztu ditzake emandako onurak bai eta, hala egokitzen

bada, jasotako dirukopuruak Nafarroako Foru Ogasunari itzularazi ere.

28. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

1. Harako 5. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren batasunek egindako inbertsioen finantzaketarako, korrituen tasaren arabera ematen den dirulaguntza erabiliko da handitzeko bazkide-ekoizleek batasunean daukaten partaidetza, diru horren kapitalizazioaren bidez.

2. Onuradunek eman beharko diote Nafarroako Foru Komunitateari, hark eskatuta, eta emandako laguntzak indarra duen bitartean, beren ustiategiaren kudeaketa tekniko-ekonomikoari buruzko datuak.

3. Nafarroako Gobernuak atzera eskuratzeko eskubidea izanen du, ondasun higiezinatarako inbertsioak egiteko onurak eman ondoko hamar urteetan, laguntzen onuradunek haiek besterentzen badituzte. Eskubide hori erabili beharko da hiru hilabeteko epearen barrenean, besterentzea gertatu dela egiaztatzen denetik aurrera.

Atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen bada, kenduko da Legegintzako Foru Dekretu hau aplikatuta eta onura gisa emandako kopuruaren balio eguneratua.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. 1998ko aurrekontu-ekitaldirako, indarrrik gabe uzten dira lurzatiak berrantolatzekeo prozesuen ondorioz aldaketak jasan dituzten laborantza-lurak berrosatzeko inbertsioetarako laguntzak.

Bigarrena. Indarrrik gabe gelditzen da, 1998ko aurrekontua gauzatzeko, Legegintzako Foru Dekretu honetako 14. artikuluko bigarren lerroaldea.

Hirugarrena. Indarrrik gabe uzten da, 1998ko aurrekontua gauzatzeko, Legegintzako Foru Dekretu honetako 26. artikuluko 2. puntuko a) letran xedatutakoa.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen dira Legegintzako Foru Dekretu honetan ezarritakoaren aurka jotzen duten xedapen guztiak, eta bereziki honako hauek:

– Nafarroako Foru Parlamentuaren 1982ko martxoaren 30eko Araua, nekazaritza eta abeltzaintzako aseguru-sarietarako laguntzak arautzen dituen.

– 133/1991 Foru Dekretu Legegilea, apirilaren 4koa, Nekazal Finantzaketari buruzko lege lerru-neko xedapenen Testu Birbildua onesten duena

– 2/1992 Foru Legea, martxoaren 16koa, apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegilearen II. eta III. Tituluak aldatzen dituena.

– 18/1992 Foru Legea, abenduaren 28koa, apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegilearen 14. artikuluari bigarren lerroaldea gehitzen diona.

– Nafarroako 1994ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legeko hamahirugarren xedapen gehigarria.

– 6/1994 Foru Legea, maiatzaren 31koa, apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegilearen II. Tituluko 4. artikulua bigarren idazatia aldatzen duena.

– 19/1994 Foru Legea, abenduaren 9koa, apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegilearen III. Titulua aldatzen duena.

– 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997

Foru Legeko hogeita batgarren, hogeita bigarren, hogeita hirugarren, hogeita laugarren eta hogeita bosgarren xedapen gehigarriak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Legegintzako Foru Dekretu hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak dikta ditzan.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, laguntzen onuradunek gutxienez ordaindu beharko duten korrituaren tasa aldatu ahal izan dezan, diruaren prezioaren bilakaeraren arabera.

Hirugarrena. Legegintzako Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzak emateko, kontuan hartu beharko dira aurrekontuetako baliabideak, eta, beraz, eskabideen onarpena eteten ahalgo da aurrekontuetako kontsignazioa aski ez denean edo lotua balego bezala dagoenean.

Laugarrena. Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--